

“OSO GARRANTZITSUA DA TALDE BAKOITZAK GAIA BERE ERARA GARATZEKO AUKERA IZATEA”



Amaia Urzelai - Hernani BHI | Batxilergoa [1. saria]

Amaia Urzelai Hernani BHIko irakaslea eta “Neutrinoak” taldearen arduraduna da. Talde horrek lortu du Batxilergoa kategoriako lehen saria.

- Orokorrean, nola baloratzen duzue Kosmodisean parte hartzearen esperientzia?
- *Oso aberasgarria izan da. Proiektu handi bat aurrera eramaten ikasi dugu, talde-lanari esker.*

- Zure ustez, zein izan da ekimen honen alderdi interesgarriena ikasleentzat?
- *Mito planeta fasean oso gustura egon dira, ilusio handia zuten. Gauza berriak ikasi eta egin dituzte, preproduktzio-fasean (gidoia idatzi, zuzendaritzari eta enpresari buruz ikasi, grabatzeko plangintza diseinatu, etab), baita grabazio eta postproduktzio edo editatzeko fasean ere. Oso motibatuta egin dute lan.*

- Nola jaso dituzte ikasleek lortutako emaitzak?
- *Oso gustura daude eta merezitako saria dela uste dute, egin duten lanagatik eta lortu duten emaitzagatik. Edonola ere, nire ustez, saririk onena ikasleek benetan lana egitean gozatu dutela jakitea da. Irabazi edo ez, hori ez zen lehentasuna. Baina, noski, une erabakigarrian, beren lana aintzat hartzen zela ikusteak asko poztu ditu.*

- Kosmodiseako 2011-2012 edizio honetan hainbat aldaketa txertatu dira, hala nola, Grapho Planeta fasea gehitzea edo wikiei garrantzi handiagoa ematea. Zer iruditu zaizkizue berrikuntza horiek?

- *Grapho Planeta fasean egin beharreko plangintzak datorren fasea kudeatzeko asko balio duela uste dut. Wikiari garrantzi handiagoa ematea ongi iruditzen zait, taldeen sailkapena erakusteko balio baitu.*

- Zure ustez, zein balio onuragarri lor daitezke Kosmodisean parte hartzean?

- *Batez ere, taldean lan egiten, lana banatzen eta guztien artean osatzen ikasten da, hori guztia ikuspuntu ezberdinak kontuan hartuta. Gainera, ikastetxetik kanpora erantzukizunak hartzen laguntzen du, eta lan luze eta konplexua izanik, oztopoei aurre egiten ikasten eta motibatuta jarraitzen laguntzen du.*

- Zein alderdi da, zure ustez, Kosmodisea 2011-2012ko onena? Eta zein alderdi dira hobetu edota aldatu beharrekoak?

- *Taldeak gaia nahi erara garatzeko aukera izatea oso garrantzitsua da. Hobetzeko, wikiak gaitasun handiagoa izan beharko lukeela uste dut, pertsona asko parte hartzen daudenean kolapsatu egiten baita.*

- Parte hartuko al duzue Kosmodiseako datorren edizioan?

- *Datorren ikasturtean, aurtengo ikasleak 2. batxilergoan egongo dira eta, agian, ezingo dute proiektua egin, oso gustura egon diren arren. Edonola ere, 1. batxilergoko ikasle berriak animatzen badira, parte hartuko dugu berriz.*

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, iruzkinak, kritikak...

- *Gure ustez, Kosmodisea oso ongi dago antolatuta, beharrezko informazioa oso ongi azaltzen zaie parte-hartzaileei. Hala ere, wikia tresna gisa indartu behar dela uste dugu. Sarri arazoak izan ditugu (blokeoak, ezabatutako gauzak, eteteak, etab.) eta horiek ekiditeko aldaketa txiki batzuk egin behar direla uste dugu.*